

Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna

2020ko Apirilaren 2a

HITZ-GOSEA
HAMBRE DE PALABRAS
FAM DE MOTS
FAME DE PALABRAS
HUNGER NACH WORTEN



Сэтгэгдэл

LASIJUMS

BIBLIO 画像

PAROLE

BÖCKER

բիբլիո

תּוֹנוּמַת

本

독서

ЧТЕНИЕ

Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna

2020ko Apirilaren 2a

JAK
JAVNA
AGENCIJA ZA
KNJIGO RS



REPUBLIKA SLOVENIJA
MINISTRSTVO ZA KULTURO



organización española
para el libro
infantil y juvenil



cliJCAT
Consell Català del Llibre
Infantil i Juvenil



gálix
asociación galega
do libro infantil e xuvenil



DIRECCIÓN GENERAL DEL LIBRO
Y ROMANTO DE LA LECTURA

Illustration: Damijan Stepančič, design: Melita Flak

JAK
JAVNA
AGENCIJA ZA
KNJIGO RS



REPUBLIKA SLOVENIJA
MINISTRSTVO ZA KULTURO



Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna

2020ko Apirilaren 2a

INTERNATIONAL BOARD ON BOOKS FOR YOUNG PEOPLE **iBbY**

HITZ-GOSEA

Ni bizi naizen tokian, zuhaixkak apirilaren amaieran edo maiatzaren hasieran berdetzen dira. Handik gutxira, tximeleta-krisalidaz betetzen dira, eta kotoizko bolatxoak edo azukre-kotoiak ematen dute. Pupek hostoz hosto irensten dituzte zuhaixkak, biluzik utzi arte. Garatzen direnean, tximeletak hegan ateratzen dira, baina zuhaixkak ez dira suntsituta geratzen. Uda iristean, berriro berdetzen dira, eta horrela behin eta berriz.

Hori idazlearen irudi da, poetaren irudi. Idazten dituzten istorioek eta poemek barrua janda, ahituta, odolustuta uzten dituzte idazleak, eta, amaitu ondoren, beren hegaldiari ekiten diote istorio eta poema horiek, liburuetara erretiratu eta irakurleak aurkituz. Etengabe errepikatzen da hau.

Eta zer gertatzen da istorio eta poema horiek?

Ezagutzen dut begietan ebakuntza egin behar izan zioten mutil bat. Ebakuntza egin ostean, bi astez eskuineko aldera bakarrik utzi zioten etzaten, eta ondoren, beste hilabete batez ezin izan zuen ezer irakurri. Hilabete eta erdi geroago, berriro liburu bat hartu zuenean, hitzak katilutik koilara batez biltzen ariko balitz bezala sentitu zen, haiek jaten ari balitz bezala. Benetan, jaten.

Eta ezagutzen dut orain irakasle den neska bat. Esan zidan: gurasoek libururik irakurtzen ez zieten haurrak pobretuta daude.

Hitzak poemetan eta ipuinetan elikagai dira. Ez gorputzaren elikagai, ezzure urdaila bete dezakeen elikagai. Espirituarentzat eta arimarentzat dira elikagai.

Norbait gosea edo egarri denean, urdaila uzkurto eta ahoa lehortzen zaio. Jateko zerbait bilatzen du, ogi-puska bat, plater bat arroz edo arto, arrain edo platano bat. Zenbat eta gose handiagoa izan, orduan eta mugatuagoa haren ikuspegia; ez du ikusten ase dezakeen janaria besterik.

Hitz-gosea, ordea, beste era batera agertzen da: goibeltasun, ezjakintasun, harrokeria gisa. Horrelako gosea dutenak ez dira ohartzen arima hotzikarek hartua dutela, euren ondotik igarotzen ari direla konturatu gabe. Beren munduaren zati bat urrunduz doakie oharkabean.

Gose-mota hori asetzen dute poemek eta istorioek.

Hala ere, ba ote da itxaropenik gose hau hitzen bidez inoiz asebate ez dutenentzat?

Bai, bada. Mutil hark ia egunero irakurtzen du. Maistra den neskak ipuinak irakurtzen dizkie ikasleei, ostiralero, astero. Inoiz ahazten bazaio, haurrek berehala gogorarazten diote.

Eta zer gertatzen da idazlearekin, poetarekin? Uda iristean, berriro berdetuko dira. Eta berriro ere, barrena jango diete beren istorioek eta poemek, gero norabide guztietan irtengo direlarik hegan, behin eta berriz.



Peter Svetina Liublianen jaio zen 1970ean. 1995ean Esloveniari Ikasketetan graduatu zen eta 2001ean Antzinako Esloveniari Poesiari buruzko doktore-tesia defendatu zuen (biak Liublianako Unibertsitateko Arte Fakultatean, Eslovenian). Esloveniari Literaturako irakasle elkartua da Esloveniari Hizkuntzen Institutuan, Alpen-Adria Unibertsitatean, Klagenfurt-en (Austria). Haur, gazte eta helduentzat idazten du, baina haren lanak xede-taldeen arteko mugak gainditzen ditu sarri, eta crossover edo generoaniztun literatura gisa irakur daitezke. Haren literatura-debuta *The Walrus who Didn't Want to Cuthis Nails* (1990) izeneko liburu ilustratua izan zen, laster txotxongilo-lan baterako oinarri bihurtu zena. Bide horretan lan asko egin zituen, hala nola *Mr. Constantine's Hat*. Haur eta gazteentzako haren liburuak ingeles, alemanera, gaztelania, koreera, poloniera, letoniera, estoniera eta lituanierara itzuli dira. Svetinaren lanek haren eguneroko bizitzako gertaera eta irudiekin jolastu ohi dute. Liubliana, jaioterria, eta haren bidaien helmugak ez ezik, beraren interes akademikoak ere islatzen dituzte – Svetinaren ikerketa zientifikoek Esloveniako antzinako poesia, haur eta gazteen literatura (batez ere Bigarren Mundu Gerraren ondoren izandako eraldaketa sozial eta politikoa) eta detektibe-eleberririk dituzte ardatz. Svetinaren poesia eta haurrentzako literatura eslovakierara itzultzen du ingeles, alemanera, kroaziera eta txekieratik, eta poema-bildumen eta lehen hezkuntzarako literatura-testuliburuaren editore gisa lan egiten du. Haren liburuak nazio eta nazioarteko saririk ospetsuenetako batzuk jaso dituzte, eta oso ezagunak dira literatura-kritikaren eta irakurle gazteen artean.

Damijan Stepanc Liublianen jaio zen 1969ko maiatzaren 22an. Bere jaioterrian bigarren hezkuntza burutu ondoren, diseinuan eta argazkigintzan espezializatuta, Arte Ederren Akademian Diseinua ikasteari ekin zion. Ulertu zuen arte-problema ebazteko hurbilketa klasikoa zela bere sorkuntza-ikuspegiari hobekien egokitzen zitzaiona. Horregatik, 1991n, bi urtez Diseinu ikasketak egin ondoren, Pintura Sailera aldatu zen. 1996an graduatu zen, lau elementuen margolan-ziklo batekin, Gustav Gnamus irakasleak zuzendua, eta *Alkimistak eta Pintoreak* izeneko lan filosofiko teoriko batekin, Marko Ursic irakasleak zuzendua. Ordudunik, Stepanc aktiboki aritu da haur eta gazteentzako liburuak irudiztatzen. Halaber, sarritan kolaboratzen du prentzarako argitalpenetan, bai gazteentzat (*PIL, PILplus*) bai irakurle helduentzat (Albert, Playboy, Nova, Literatura). Pintatzeaz gain, beste arte-forma batzuk ere lantzen ditu: komikiak, biñetak eta txotxongiloak. Haren pintura-trebetasunek eragin nabarmena dute irudien adierazkortasunean, hasi azpian dauzkan koloreetatik eta konposiziotik eta formatuaren tamainaraino; hori guztia bat dator egilearen uste sendo batekin: pintura eta ilustrazioa beti elkarren eskutik doazela. Orain arte, Stepanc ehunen bat liburu irudiztatu ditu, komiki ugari sortu ditu elkarlanean eta hainbat erakusketa independente egin ditu ilustrazioaren arloan.

